

Mondragon ZTIM Hub ekintzak

Aldi baterako erakusketa ikastetxeetan: ETORKIZUNEKO ERRONKAK

Astebetetz izango dira ikastetxean, denentzat ikusgai, zientzia eta teknologia alorrean etorkizunean izango diren 6 erronka garrantzitsuri buruzko panelak. Helburua da, ikasleei zientzia eta teknologiarekiko interesa pizteaz harago, aldaketa edo erronka hauei buruzko hausnarketa bultzatzea, dilema etiko zein moralak sortzen dituzten heinean

- Lanketa DBHko azken mailentzat gomendatzen da
- Zientziak gure bizitzan duen presentzia eta garrantziaz jabetzen lagunduko du, eta etorkizunean izango diren behar ugari ildo horretatik joango denaz ohartaraziko ditu gazteak

Nola prestatzen da?

1. Panelak ikastetxera eramatean, aurkezpen bat egingo zaie ikasleei.
2. Erakusketa jartzen denetik denbora-tarte batera, klasean horri buruzko ariketa bat burutuko da.
3. Ariketa: Philips 66 metodoa erabiliz, eztabaida-saio bat egitea ikasgelan.
4. Eztabaida bideratzeko, irakasleak galdera-sorta bat aurkeztuko die ikasleei.



Aurkezpenerako gidoia guk emango dugu

Eskaleta. Ikastetxean

Denbora	Implementazioa
10 min	Irakasleak: panelak ZTIM Hub txokoan kokatzean, aurkezpen txiki bat egingo du ikasleentzat, aldi baterako erakusketa zertan datzan azalduz
Aste 1	Erakusketa ikusgai egongo da guztientzat
7 min	Irakasleak: ikasleak taldeka banatu, egin beharrekoaren aurkezpena egin (galdera-sorta)
3 min	Irakasleak: rol banaketa
6 min	Ikasleak: taldekako eztabaida (6ko taldeetan, bakoitzak minutu bat)
20 min	Ikasleak: aldeko ordezkariak, taldekako ondorioak partekatuko dituzte (talde osoaren ondorioen partekatzea)

